

## 0.- SARRERA

Orain dela bi urte t'erdi hasi zen Bidankozarte aldizkariaren ibilbidea eta, tontamentean, dagoeneko 10. zenbakian gaude. Bitxikeri, historia, istorioak, lekuizenak, etxeen izenak eta joan-etorriak, hiztegi eta abar-ez betetako 40 orri, azken finean, Bidankoztez beteriko 40 orri.

Oraingo honetan, gainera, gaztelaniaz eta euskaraz aldi berean argia ikusten du. Web-orrian, 1. eta 2. zenbakiak ere agertzen dira euskaraz jada. Nire esker

onak itzulpen lan honetan lagundu dugunoi.

Bestalde, eta nahiz eta aldizkari honetan bertan honen xehetasun gehiago eman, Erronkaribarreko batzuk Amabitxi Proiektua jarri dugu martxan, gure herrien ondarea katalogatzea. Honetarako, herrikideoi laguntza (lagundu nahi duena ongi etorria izango da) eta harrera ona eskatu nahi dizuegu. Zenbaki honetako

azken orrialdeetan informazio gehiago dago.

Azkenik, Gorka Lekaroz Bidankozeko azken euskaldunen ganean ibili da ikertzen, gure herriko uskarako azken lekukoei galdezka, eta emaitza hiru sarreretan irakur daiteke [linguanavarrorum.blogariak.net](http://linguanavarrorum.blogariak.net) blogean (euskaraz baino ez dago). Eta, orain bai, edukiekin hasiko gara.

## 1.- HISTORIA APURRAK - DELINKUENTZIA GARAI EZBERDINETAN

Kasualitatea dirudi, baina berri historikoei begiratuz, gaur egunetik atzerantz urte biribiletan (25 urteka), eredarri ez diren hainbat pasarte aurki ditzakegu, non agerian geratzen da Bidankozen, leku guztietan bezala, babak egosten zirela (eta are gehiago gure etxetan).

Horrela, denboran atzera egiten dugu 450 urtetan, lapurreta batekin hasteko. 1563ko bukaeran eta 1564ko hasieran, Fiskalak eta Bidankozeko herriak Juan de Jauregiberri Larrainetarra (Larrautarra, Zuberotarra) epaitegietara eraman zuten, errepikatutako lapurretengatik.

Gehiago jakiteko, Nafarroako Artxibo Orokorra, 010565 zenbakiko Prozesua (163 orri).

Prozesu honetatik mende bat beranduago, 1664ko hasieran, beste motatako kasu bat aurkitzen dugu, lan-intrusismoarena. Prozesu honek Fiskalak eta Patrimonialak Domingo Garate batxiller bidankoztarraren aurka ekiten diote, nonbait botikari eta sendagile zebilela titulurik izan gabe.

Honetan sakontzeko, Nafarroako Artxibo Orokorra, 124959 zenbakiko Prozesua (11 orri).

Bigarren prozesu hau eta 25 urte eskas beranduago, 1688 beranduago, beste bat Domingo Esparza eta Alejandro Bertol bidankoztarrak aurrez aurre ipini zituen, bigarrenak lehenengoari iraindu eta eraso-ahalegina egin zuelako.

Gehiago jakiteko, Para saber más, Nafarroako Artxibo Orokorra, 125010 zenbakiko Prozesua (3 orri).

Beste mende laurden bat beranduago, 1713ko bukaeran eta 1714ko hasieran, irainen beste kasu bat. Oraingo honetan, Juan eta Catalina Galindo gardetarrak María Sanz bidankoztarrari leporatzen diote "sorgin" deitzea (bidankoztarrak gardetarrei! Hamaika ikusteko jaiok gara!).

Honen erreferentzia, Nafarroako Artxibo Nagusia, 205347 zenbakiko prozesua (33 orri).

Lau hauek dagoen guztiaren erakusgarri txiki bat baino ez dira, askoz gehiago baitaude. Hurrengo batean "gau ilun" batzuen inguruan sakonduko dut.

## 2.- HEMEROTEKA - ANTZINAKO NEGUA (1914)

Duela 100 urteko negua, 1914. urtea hasi zenekoa, "lehenagokoen" antzekoa izan omen zen, "lehenagoko" bideekin (hau da, mandabideak, Burgirako errepidea ere ez zegoelako egina) eta "lehenagoko" herri batean, "lehenagoko" elurte batek 8 egunez herria isolaturik utzi baitzuen.

Horrela ba eta beste egitekorik gabe, sasoi oneko eta ausardia handiko zenbait bizilagunek Asterix eta Obelixen modura, basurdeak ehizatzen abiatu ziren, hauek izaten zuten antzeko emaitzekin.

Are barregarriagoa da oraindik artzainak ukulura joan eta 5 basurde topatu zituen hartu zuen sorpresa imajinatzea. "Mekagüen!" Eta ez zitzaion

**En pleno temporal**

**Incomunicados**

Con motivo de la gran nevada con que en sus últimos días nos obsequió el finado año, hemos estado incomunicados por completo durante ocho días, sin que hayamos podido recibir, ni aun asistencia facultativa.

**15 jabalíes**

Varios vecinos de gran resistencia y valor salieron a la caza de jabalíes, y merced a la gruesa capa de nieve que cubre al monte, pudieron cobrar en la primera cazata siete hermosos ejemplares, que según rumores, están ya acompañados de otros cinco cazados en la segunda. Todavía no han regresado los cazadores.

El día 4 del actual se dirigía otro vecino a un corral, y al abrigo de unas peñas encontró cinco cerdosos, logrando matar tres a hachazos, pues los paquidermos no tenían otra salida para huir que el camino por donde iba el improvisado cazador.

EL CORRESPONSAL

Vidangoz 12-I-914.

beste ezer bururatu basurdeen aurka aizkoraka hastea baino.

Aipu berezia berriemaileari (horretaz ari gara, badirudi egunkari bat baino gehiagotan lan egiten zuela, berri hau bai "Diario de Navarra" bai "El Pueblo Navarro" egunkarietan argitaratu baitzen 1914/01/16an eta 1914/01/17an hurrenez hurren). Idazkera aberats baten adibide ontzat, basurdeak 4 modu ezberdinetan izendatzeko ahalegina egiten du, azkeneko izendapenarekin asmatu gabe; basurdeak, aleak, cerdoso eta pakidermoak. Ongi ikasia omen zen.

2014ko neguak zer ekarriko digun ez dakigu, antza ez gara isolaturik geldituko... Baina 2012ko udazkena ikusita, edozer gerta daiteke.

## 3.- TOPONIMIA (LEKUEN IZENAK) - AZALTEGIA

Oraingoan esku artean dugun toponimoa aski ezaguna da, Bidankozeko zenbait etxeren bordak bertan baitaude: *Hualderna, Ornat, Kostiol, Landa, Diego, Aristu...* Gertaera hau seguruenik ez da kasualitatea izango, *Paskel* etxeko Crisanto Paskel Ornatek, *Azaltegia* izenari buruz galdetutakoan aipatutakoagatik (*Erronkari eta Antsoke Toponimia*z, Juan Karlos López-Mugartza; Euskaltzaindia, 2006), *“mendi honetan hainbat borda daude, eta garai batean bizitza egiten zen haietan ere, patata eta lekaleentzat ona zen; Bidankozeko mendirik onena zen”*.

*Azaltegia Binies* ugaltxaren eskuineko bazterrean dago (ibaiaren zentzua jarraituz), edo mendebaldean, mapan ikusi ezker. Ingurua asko ezagutzen ez duenarentzat eta gertuko ideia bat egite aldera,

*Zokoandiako* eskusa edo presatik, *Pulpitera* eta *Astipuntaren* (*Pulpiteratik* iparraldera dagoen hurrengo mendibizkarra) artean geratzen den mendi zatia da.

Crisanto Pasquelen hitzetan,

*“Azaltegiako* Iparraldean *Ordanola* (*Urdainola*) geratzen da, Hegoaldetik *Lakunarekin* [mugutzen du], **Eki**aldetik *Binies* ugaltxarekin eta **Mende**aldetik *Olaberria* eta *Astipuntarekin*”.

Toponimo honen inguruan antzinako erreferentziak aurki ditzakegu, 1586koa haietariko lehena, eta bizitzako kasualitateak direla eta, beste Pasquiel baten berri ematen zaigu bertan, seguruenik oraingoekin harremanik izango ez duena, baina nork daki... Gurera itzulita, 1586ean, Petri Pasquielek Bidankozeko Juanco Alcati (Juanco orduan izena zen) egindako lursail baten salmenta legezatzeko idatzia egin zuen. Idatzi horretan esaten zaigu lursail hori *“Bidankozeko Zetegiondoa deituriko maldan. Alde batetik Domingo Arbururen*

*liherrri batekin mugatzen du, beste alde batetik Azaltegia daraman biderekin, bestetik Jayme barrenaren liherrri batekin, eta bestetik ugaltxarekin”*. Garai hartako idatzian ikusi daitekeenez, tokien izenak batzutan denboraren poderioz aldatu egiten dira, batek daki 1586an zeri deituko zioten *Zetegiondoa*...

Esanahiari dagokionez, Euskara pixka bat dakien edonork pentsa dezake, *Azaltegiaren* etimologia, *“azal/azala”*-rekin, hau da, *“lur azala”*-rekin zerikusia duela, eta *“tegi”*, lekua edo tokia izanik esanenez *“azalean, agerian dagoen tokia dela”*. Baina, antza denez, kontua ez doa hortik eta berehala beste azalpen bat doa, seguruenik berezko esanahiera gehiago hurbilduko dena.

Uskararekin egokiagoa dena, eta seguruenik, esanahiari begira beste xehetasun batzuk izango ditu, baina hori dagokion momentuan azalduko dugu.

Horrela, ziurrenik *Azaltegia “azeriaren [edo azerien] hegi”* zen. Aezkoako mendian ia toponimo berbera topa dezakegu, *Azalegia*. Mikel Belaskok *“Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra”* (Pamiela, 1996), liburuan ikertzen du leku-izen hori, guk aipatutako esanahi berbera proposatzen.


Azken finean, hasierako bidankoztar haiek lekuei izenak ematean, zer egingo zuten, bada? Ba, beraien ezaugarriekin lotu. Adibidez, inguruan hazten diren zuhaitzak: *Ariztoia* (Hariztia), *el Abetar*

(Izeidia);  
Inguruan dauden harriengatik: *Txorrotxarria* (zorrotzeko harria), *Lejerra* (legarra);  
Inguruko leku esanguratsuengandik: *San Juan* (ermita inguruan zegoelako), *Elizarena* (eliza bertan duen mendiak);  
Lekuan erein

edo landatzen denagatik, *Tipulerri* (tipulak hazten diren tokia), eta abar.

Halaber, toki batean ibiltzen ziren animaliak ere balio zuten lekuei izenak jartzeko, aztertzen ari garen adibidean bezala. *Azaltegia “azerien tokia”* zen, baina Bidankozen *Arzarena* (hartarena), *Otsobieta* (otsoen hobiak) edota *Eperralorra* (eper zelaia) ere baditugu.

Eta honekin amaitutzat emango dugu toponimia atala, honetan ohikoa den baina luzeagoa izan dena, baina lekuak izendatzeko moduak eta izen horien jatorria eta denboran izandako bilakaeran eta, askotan, desagertzean, lagungarriak diren jarraibideak jaso izango zenuztelakoan nago.



Jatorria jakiteko egin behar den leku-izenaren zatiketa berbera bada ere, *“azal”* hitzaren esanahia bestelakoa da. Kasu honetan *“azal”*, *“azari”* hitzaren bilakaera fonetiko batetik dator, *“azeri”*-a Erronkariko Uskaran. Bilakaera fonetiko honen beste adibide gertukoak: *Erronkari* >> *Roncal*, *Igari* >> *Igal* edo *Biotzari* >> *Bigiñezal*.

Izenaren bigarren atalak, *“-tegi”*-k, bi azalpen posible ditu: (t)egia, *“hegi”*-tik, malda edo aldapa esan nahi duena (*Akerregian* bezala), *“t”* hizkia ahoskatzea errazagoa egiteko elementu izanda, edo *“tegi”*, tokia edo lekua esanahiarekin. *“Egi”* osagaiak *“eki”* osagaiarekin ere harreman estua du, *Ekiederra* edo *Ekiminearekin*, erronkariko



## 4.- OIKONIMIA (ETXEEN IZENAK) -MONXON ETXEA

Orain berriz dagokio *Iriarte*a auzoari. Kasu honetan, nahiz eta gaur egun etxe hori ez dagoen arren, etxe bakana izen horrekin, baina fisikoki bai aurki dezakegula. Aurreko neguan *Pelairea* etxeaz hitz egin bagenuen, lehenago *Artutx* etxea izandakoa, oraingoan alboko etxeari dagokio txanda, *Monxon* etxea, gaur egun *Pelairea* etxeke zati bat izanik, *Pexenena* etxeke aldamenekoa.

*Artutx* etxearen ildotik, xehetasun txiki bat esatea ahaztu zitzaidan etxe horretaz hitz egitea egokitu zenean. Batzuk *Kartutxo* deitzen zuten etxea, izen ematen zion abizenarekin hitz-joko bat eginez. Etxea eta bere bizilagunak izendatzen zuten izen horri lotuta, Evaristo Urzainki Hualdek (*Lengorna*) adierazten zuen *Kurtxo* bat (*Kurtxoko muinari* izen ematen dionak, *Zeletatik Pulpiterara* igotzen dena) eta *Kartutxo* bat (*Artutx* etxeke bat) biltzen zirenean bata besteari esaten omen zion:

“Nora doa *Kurtxo*?”.

Eta *Kurtxok* erantzuten zion “Buztan bila. Eta *Kartutxo*?”.

“Kanoira”.

Honekin gogora ekartzen dugu ere antzinan ohikoa zen goitizenen erabilera. Elkarrizketa honi dagokion azalpena da, *Kurtxo* (edo *Kurto*, edo *Kurto*, edo beharbada *Kurlo*) José María Iribarrenen “*Vocabulario Navarro*”-k definitzen duen eran eta nik elkarrizketatutako edadetu batzuek adierazten zuten bezala, buztanik gabekoari egiten dio aipamen. Horregatik “Nora doa *Kurtxo*? Buztan bila”.

Eta ohar hau eginda, goazen ale honetan dagokigunari. *Monxon* etxea, hura bezala, etxe bakan eta bizitua bezala, XIX. mendearen bukaera arte erabili zen, baina bere jatorria ez dago oso argi, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Elizako matrikula-liburuek diotenaren arabera, 1893-tik ez da etxea familia baten etxebizitza bezala erabiltzen, bere

azkeneko bizilaguna, Fermín Pasqual Monzón Pelayrea hil zen urtetik. Bidankozeko helduek esaten zidatenaren arabera, eta nire kasuan ere etxean entzunagatik, Juan Miguel Artutx Monzón nire birraitona *Monxon* etxean jaio omen zen, ondoren *Largotena* etxean bizi izan zelarik, eta baita bere anaia Pedro ere, *Maisterra* etxera ezkondu zena. Eta bila eta bila, baietz eta ezetz, ba omen zegoen arrazoi apur bat baina ez osoa: Juan Miguel ez zen *Monxon* etxean jaio, baizik eta *Anarna* etxean, eta Pedro etxe horretan bai jaio zela.



Beraien gurasoak, Manuel Narciso Artutx Urzainki (*Anarna*) eta Francisca Balbina Monzón Barrena (*Monxon*) 1883.ean ezkondu zirenean hasiera batean *Anarna* etxean bizi izan ziren. Gero, ezagutzen ez dugun arrazoi batengatik, 1886.ean *Monxon* etxera aldatu ziren, non oraindik Balbinaren aita bizi zen, lehen aipatutako Fermín Pasqual Monzón Pelayrea. Eta 1891-n senar-emazteak eta beraien 3 seme-alabak *Largotena* etxera aldatu ziren, “oinordeko”, hau da, bertan bizi zen edadetuaz ardurutzeraz, Santiago Garate Irigarai-z, María Antonia Sanz Calvorenkin alargundu berri zena, bera hildakoan etxearekin gelditzeko truke, 1903an gertatu zena.

Familia hau *Monxon* etxetik atera ondoren, “aitona” bakarrik gelditu zen

bertan, Fermín Pasqual Monzón Pelairea, eta soilik bi urte beranduago hil zen, 1893-an, eta horrela bukatu zen *Monxon* etxea hura bezala. Geroago lastategizat edo edozer bezala erabiliko zen, baina jada ez etxebizitzatzat.

Jada ikusia dugu *Monxon* etxeak nola amaitu zuen, baina nola eta noiz sortu zen? Ba oraingo honetan ez dago oso argi erantzuna. 1861/1862-tik, elizako matrikula-liburuak egiten hasi ziren urtetik, eliza batean bizi ziren “*arima errolda*” antzeko zerbit, kasu honetan Bidankozekoa, Fermín Pasqual Monzón

Pelairea jada bizi zen *Monxon* etxean, alargun eta bi alabekin, bat izandako bi bikoteena. Alabarik helduena *Artutx* etxeke batekin ezkondu zen, oraingo *Pelairea* etxea, eta beharbada horregatik, azken finean, *Monxon* etxea *Artutx* etxeke jabetzara igaro zen. Alabarik gazteena Balbina zen, etxe honetan bizi izan zena denbora labur batez bere bikotekidearekin, baina azkenik *Largotena* etxera joan zena.

Eta data horien aurretik, ia 45 urteko hutsune bat bait dago dokumentazioan, 1816-a arte, ez dagoela jakiterik zer gertatu zen, *Monxon* etxera nola eta nor iritsi zen.

Eta ziur jakin ezin dugunez, ba hipotesiak egitea dagokigu, eta ondorengo hau da bururatzten zaidana: Fermín Pasqual Monzón Pelairea Joaquina Juanco Sanzekin ezkondu zen eta bizitzeko etxerik ez zutenez, *Juankoren* jabetzakoa izango zen lastategi edo baratze batean etxea egin zuten.

Izenari dagokionez, ez du buru-hauste handirik sortu beharrik: Fermín Pasqual zenari “*Monxon*” deituko zioten bere abizena hori baitzen, baina Bidankozeko ahoskera berezi horretan esanzen zuten “*x*”-a, bai *Muxen*, bai *Paxapauen* eta bai *Xapateron* bezala.

Etxetxo txikia, baina aditzera eman duen istorioa, zertxobait handiagoa.

# BIDANKOZARTE

10. zenbaki

ALDIZKARI HISTORIKO-KULTURALA

2013-2014ko negua

## 5.- BIDANKOZEKO HIZTEGIA - JANARIA

Aurreko zenbakian sukaldeari buruzko hiztegia biltzen bagenuen, oraingo honetan, sail honen gaia janaria izango da, baina ez bakarrik elikagaiak, baizik eta haietako zatiak ere, edo bere lantzearekiko erlazionatutako elementuak ere.

**Baineta:** Leka;

**Burbullos:** Ur goritako burbuilak;

**Burumo:** Azaburua, hostoek bola bat eratzen duten aza mota;

**Carraza:** Sorta. Adib.: "Una carraza de cebollas";

**Cerreña:** Urdaiazpiko zaharreko parasittoa;

**Esbafarse:** Edari gasduna galtzea gasa. "El champán se ha esbafado";

**Llorra:** Azen kimua;

**Parrutxo:** Udazken-ondoa;

**Patxatxingo:** Patata txikia;

**Polpa:** Mania. Hezurrik gabeko haragian aplikatzen da;

**Rebuchuelo:** Onddo gorria;

**Rebullo:** Pikorra edo koagulua;

**Sabernal:** Ardorako zahagia;

**Sobar:** Ogia oratzea;

**Sorico/a:** Frutua ondu-ondua. "¡Qué sorica está esta manzana!";

**Txingorra:** Txerri-gantza;

**Txintxila:** Dilista;

**Txistor:** Txistorra;

**Txotopil:** Artoz (?) egindako opila;

**Txula:** Xerra (urdaiazpikokoa, solomokoa...);

**Txungur:** Lekaleak edo barazkiak egosteko erabiltzen den haragiarekiko urdaiazpikoko hezurra;

**Txuntxuna:** Gatzik eta legamiarik gabeko ogia;

**Txurir:** Zuritzea, babarrunak aletzea;

**Usones:** Udaberriko perretxikoak;

**Xagarko:** Basa-sagarra;

**Zurrapa:** Ogiak uzten dituen apurrak;

Dokumentatuta daudenak baino ez dira, baina ziur edozein etxetan asko gehiago etorri zaizkizue burura. Oraingo honetan, nahiko.

## 6.- DUELA 100 URTE JAIOAK: 1914ko KINTOAK

Beste urte bat hastear dugu eta aukera proposa dugu duela 100 urteko Bidankozen nortzuk jaio ziren birpasatzeko.

Horrela, 1914an 15 haur jaio ziren Bidankozen, eta harritzeko zenbakia ez zen izan urte hartakoa, gutxi-gora behera garaiko jaiotzen batezbestean zegoen. Ikus dezagun nortzuk eta ze etxetan jaio ziren:

Juan Jesús Navarro Aizagar (*Aizagar*);

Engracia Urzainqui Pérez (*Kostiol / Urzainqui*);

Teodoro Urzainqui Urzainqui (*Pantxo*);

Cándida Fuertes Salvoch (*Lixalte / Urzainqui*);

Máxima Mainz Landa (*Mux*);

Felisa Elizalde Sanz (*Laskorna / Elizalde*);

Serafina Zubiri De Andrés (*Secretario*);

Patricio Gayarre Necochea (*Gaiarre*);

Felisa Juanco Jimeno (*Antxon / Navarro*);

M<sup>a</sup> Concepción Juanco Pérez (*Paxapan*);

Marina Mainz Landa (*Landa*);

Francisco Mainz Mendigacha (*Bernabé*);

Teófilo Ornat Landa (*Bomba*);

Gregorio Sanz De Miguel (*Arlla*);

Benita Sanz Fuertes (*Kurllo*);

## 7.- MARIANO MENDIGATXAREN ESKUTITZAK (URRUXKIDEAK)

Oraingoan, 1904ko otsaileko gutunean, Mariano Mendigatzak, Bidankozen egun galdua den ohitura baten berri ematen digu. Horrela, herriko bizilagunak adiskidetzen ziren mahai baten inguruan, epaiketen beharrik gabe;

"Bihar kandelariako amabirjinaren eguna, bezperak erran, eta portikoan herriko auzokide guztien izenak idazten dira bakoitza bere zedulan, gero kapela batean elkartzen dira; ongi nahastu, eta bi mutil deitzen dira; eta batek zedula bat ateratzen du eta apaizari ematen dio; beste

mutilak beste zedula bat ateratzen du eta alkateari ematen dio; biak izenak irakurtzen dituzte eta bikoteka elkarrekin egon behar dute. Modu honetan bizilagun guztiak bikoteka elkartzen dira; gero denak joaten dira etxe batera bazkaltzera eta bestera aláltzera, gero Santa Ageda eguna, gaur sei, bikote berak elkartzen dira egun guztian zehar jan eta edatera; haien artean aukeratutako etxean. Lehen elkartzera behartzen zituzten, bi pezeta, eta libra bat argizari ordaintzeko zigorpean; orain ez dago penarik, borondatea duena elkartzen

da, baina oraindik gehiengoa elkartzen da; afari bat egiteko soilik ez bada ere; zaharrei entzuna diegu, gauza hau ezarrita zegoela, mokoka zenbiltzaten horiek bakean jartzeko; orain ere ikusia dugu, arrunki erortzen direla elkarrekin, baten bat haserre badago; eta gehienak bakean jartzen dira, bilkura honetan. Ohitura honi "urruxkidiak" esaten diogu".

Ohitura bitxia, "Urruxkideena". Tamalgarría ohitura hau galtzea.

## 8.- BUKAERA

Honaino Bidankozarteko 10. Zenbakiko "ohiko" edukiak, baina, hasieran ohar-tuta bezala, Amabitxi Proiektuari buruzko eranskina, zuen

jakinmina piztea espero dudana eta, bide nabar, parte hartzen animatu.

Hau da dena. Apirilaren gehiengo: gerra-zibileko amaierara 75. Urteurrena, gaztari

buruzko hiztegia, Atablada, Txantxolit etxea eta abar...

Agur bero bat eta ea negu arina dugun... Eta bestela, Egurra!!!

LAGUNTZAILE:

AYUNTAMIENTO  
DE LA VILLA DE  
VIDANGOZ



BIDANKOZEKO  
AIZA BULGUA

bidankozarte@yahoo.es

vidangoz.com/bidankozarte